EROSKIK SUPERMERKATU FRANKIZIATU BERRI BAT INAUGURATU DU BEGÍJARREN, JAÉN

- **EROSKI city berriak elikagaien zerbitzu osoa eskaintzen du, fabrikatzaileen markekin, kalitatezko marka propio batekin eta 4.000 produktu-erreferentzia baino gehiagorekin.**
- **EROSKIk jarraitzen du frankizia-eredua bultzatzen, Espainia osoan 600 saltoki frankiziatu baino gehiago dituen sarea sendotuz.**

Jaén, 2026ko azaroaren 26.- EROSKIk supermerkatu berri bat inauguratu du Begíjar udalerrian (Jaén), Avenida de Andalucía, 11n. EROSKI city markaren pean, saltokiak bezeroari tratu pertsonalizatua eskaintzen dio, tokiko produktuen eta sasoiko produktu freskoen aldeko apustu sendoa egiten du (300 erreferentzia baino gehiagorekin), elikadura osasungarria sustatzen du eta eguneroko erosketan aurrezteko modu berriak eskaintzen ditu. Saltokiak 6 pertsonako langile taldea du.

Supermerkatu berriak produktu-sorta zabala du: fabrikatzaile liderren markak, marka propioak eta tokiko ekoizleen produktuak, 280 metro koadroko salmenta-aretoan. Halaber, elikagai freskoen eskaintza handia du, bereziki sasoiko tokiko fruta eta barazkiak, eta erreferentzia osasungarriek pisua irabazten dute produktu ekologikoen sorta zabal batekin. Gainera, saltokiak ogi eta opil egin berriak ere eskaintzen ditu, bezeroei ahalik eta freskotasun handiena bermatzeko.

Eskaintzak eta sustapenak hilero izango dira, kontsumitzaileei aurrezten laguntzeko. Aurrezkiaren aldeko apustu horrek EROSKI Club programan du adierazpenik nabarmenena: markarekin Bezero Bazkideak fidelizatzeko programa da, promozio oso erakargarriak eskaintzen ditu eta, horrez gain, Travel Club programaren abantaila guztiak ditu. 6.500 kontsumitzaile baino gehiago dira kooperatibaren Bezero Bazkide, eta jada EROSKI Clubeko abantailez gozatzen dute Jaéngo probintzian.

2025ean 46 frankizia inauguratu ditu

EROSKIk 46 frankizia inauguratu zituen 2025ean, 9 milioi euro baino gehiagoko inbertsio globalarekin eta 276 lanpostu berri sortuta. Hedapen horrek, denda propioen sarearen eraldaketarekin batera, «Contigo» merkataritza-eredua indartzen du, EROSKI saltokien ezaugarri dena.

EROSKI - Komunikazio Korporatiboko arduraduna
Patricia Martín Sanchidrián
Tel: 946 211 214 comunicacion@eroski.es

INCÓGNITO - Prentsa bulegoa
Silvia Peralta
Tel: 917 379 950

EROSKIk jarraitzen du frankizia-eredua bultzatzen, Espainia osoan 600 saltoki frankiziatu baino gehiago dituen sarea sendotuz. 2026ko ekitaldian, konpainiak 50 frankizia berri baino gehiago irekitzea aurreikusten du, eta, hala, sarearen hedapenarekin jarraituko du, ikuspegi estrategikoa Katalunian, Euskal Autonomia Erkidegoan, Andaluzian, Madrilen, Gaztela-Mantxan, Balearretan, Galizian eta Levanten jarrita, hazkunde iraunkorraren eta hurbiltasunaren estrategiarekin bat.

Sari entzutetsuekin saritua

EROSKIk frankizia onenaren saria jaso zuen «Supermerkatuen Frankiziak» kategorian, «2025-2026ko Urteko Merkataritza» sarietan. Aitorpen horiek kontsumitzaileek ematen dituzte, Espainiako kontsumitzaileen sariketarik handienean eta retail sektoreko merkatu-azterketa handienetako batean.

EROSKIk «Ibilbide Onena duen Frankizia» saria ere jaso du 2024an Gasteizko Salón FrankiNorte-n egindako edizioan, Asociación Española de Franquiciadores (AEF) elkarteak emana.

Era berean, EROSKIren frankiziatuetako bat «Urteko Frankiziatu Onena» gisa aitortu zuten elikaduraren kategorian, hori ere AEFren eskutik. Sari horrek bere eguneroko lana nabarmentzen du, eta EROSKIk frankizia nola ulertzen duen adierazten duten balioak nola gorpuzten dituen, frankiziatuen prestakuntzan eta etengabeko aholkularitzan egindako ahalegina islatuz. Balio bereizgarri horiek arrakastaz hedatzen dira sare osoan, EROSKIren frankizietarako marketin-plan sendo batek lagunduta.

Lankidetza-hitzarmenak

Kooperatibak lankidetza-hitzarmena mantentzen du Confederación Española de Asociaciones de Jóvenes Empresarios (CEAJE) erakundearekin, enpresari gazteen eta autonomoen ekintzailetza babesteko eta bultzatzeko. Ekintzaileekiko konpromisoa indartzeaz gain, EROSKIk autonomia-erkidego desberdinetako tokiko ekonomiaren garapenean laguntzea bilatzen du.

EROSKIri buruz

EROSKI banaketa talde liderretako bat da Espainia iparraldeko merkatuan —Galiziatik Balearretara—, %12,32ko merkatu kuotarekin; eta liderra da Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Galizian, eta buruzagikide (kolider) da Balearretan. 2025aren amaieran, 1.508 saltoki zituen bere sare komertzial omnikanalean: besteak beste, supermerkatuak, hipermerkatuak, cash & carry-ak eta online supermerkatuak, baita optikak, kirol dendak eta

EROSKI - Komunikazio Korporatiboko arduraduna
Patricia Martín Sanchidrián
Tel: 946 211 214 comunicacion@eroski.es

INCÓGNITO - Prentsa bulegoa
Silvia Peralta
Tel: 917 379 950

elikagaien arlokoak ez diren beste negozio batzuk ere. Horretaz gainera, 6 milioi Bezero Bazkide baino gehiago ditu, eta 28.200 lagunek baino gehiagok osatzen dute langile taldea; horietatik 8.300 baino gehiago, berriz, bazkide eta jabe dira.

EROSKI - Komunikazio Korporatiboko arduraduna
Patricia Martín Sanchidrián

Tel: 946 211 214 comunicacion@eroski.es

INCÓGNITO - Prentsa bulegoa
Silvia Peralta

Tel: 917 379 950